



## INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

### ENERGIA-HORNIDURAK

Prestatze-data: 2017

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.

LABURPEN-FITXA: ENERGIA-HORNIDURAK

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Dibulgazio-dokumentu hau dokumentu-bilduma baten barruan sartzen da, eta helburua da erakunde publiko nahiz pribatuen **erosketa eta kontratazioetan ingurumen-alderdiak txertatzea** ahalbidetzea eta haren abantailak jakinaraztea.

Dokumentu honen bidez modu errazean azaldu nahi da zein alderdi hartu behar diren kontuan erosketa edo kontratazio ingurumenarekiko arduratsu bat egiteko. Kontuan hartu beharreko giltzarriak berrikustez gain, ingurumena zaintzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusien berrikusketa bat ere egiten du. Azkenik, erosketa- eta kontratazio-prozesu osorako jarraibideak ezartzen ditu, prozesua ondo amaitzeko.

**EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA** da Eusko Jaurlaritzak berak Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez prestatutako laguntza-tresna nagusia.

Administrazio publiko mota desberdinetan erosketa eta kontratazio berdea modu integralean hedatzeko behar den informazio guztia biltzen du eskuliburu honek.

Argitalpeneko testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.



### EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.



## GURE ERABAKIA:

### ENERGIA-HORNIDURAK KONTRATATZEA INGURUMEN-IRIZPIDEekin

Ez dago zalantzarik energia-zerbitzuak funtsezkoak direla gure udalerrietako azpiegiturek funtziona dezaten. Hauek dira nagusiak:

- Hornidura elektrikoa: Funtsezko hornidura administrazio publikoaren funtzionamendurako eta zerbitzu publikoak emateko.
- Gas naturalaren hornidura: Administrazio publikoak titulartasun publikoko eraikinak girotzeko erabiltzen du batez ere.
- Gasolioaren hornidura: Litekeena da administrazioak A, B edo C gasolioa erosi behar izatea, gasolio horri ematen zaion erabileraren arabera: ibilgailuak, ontziak/makineria edo berokuntza.

Kontratazio eta erosketa berdeak positiboki laguntzen dute ingurumen-irizpide horiek hornidura horietan sartuz. Nola? Fitxa honetan zehaztuko dugu, ikus dezagun.

### EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.

## ZER JAKIN BEHAR DUGUN.

Ingurumen-irizpideak aintzat hartzen dituen energia-horniduraren zerbitzu batek ahalbidetzen du zerbitzu horrek berekin dakartzan inpaktu negatibo nagusiak ahalik eta gehien murriztea. Laguntza gisa, honako hauek dira harekin lotutako ideia batzuk:

### Funtsezko kontzeptu batzuk

#### **Energia-hornidurako ingurumen-inpaktuak murrizteko, zer neurri daude?**

1. Iturri berriztagarrietatik eratorritako energia kontsumitzeak energia-produkzioaren jasangarritasuna bermatzen du eta ingurumen-inpaktuak murrizten ditu, batez ere energia-produkzioari lotutako CO<sub>2</sub>ren emisioak.
2. Energia gutxiago erabiltzea eta energia ahalik eta modu efizienteenean erabiltzea jarduera publiko guztietan.
3. Ingurumen-inpaktuak murriztea energia-kontsumoan. Alderdi hori oso garrantzitsua da, adibidez, gasolioaren horniduran, errekuntza-prozesuari lotutako hainbat emisioarekin lotuta baitago.
4. Kontsumoak kontrolatzeko neurriak aplikatzea. Datu horiek ahalbidetuko dute non eta noiz kontsumitzen den gehiago detektatzea, energia aurrezteko neurriak hartu ahal izateko.

#### **Energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako elektrizitatea, nondik dator eta nola egiaztatzen da?**

- 2009/28/EE Zuzentarauan deskribatzen denez, energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako elektrizitatearen barnean honako hauek sartzen dira: energia eolikoa, eguzki-energia, energia aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegiatiko gasak eta biogasa.
- 2012/27/EB Zuzentarauan deskribatzen denez, efizientzia handiko kogenerazioa lehen mailako energia gutxienez % 10 aurrezteka ekarriko duen kogeneraziotik eta maila txikiko kogenerazioko eta mikrokogenerazioko unitateen ekoizpenetik eratortzen dena da.
- Hornitutako elektrizitatearen jatorria betetzen dela egiaztatzeko, jatorri hori Jatorri Berriztagarria Bermatzeko Ziurtagiriarekin egiaztatuko da. Helburu hori betetzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: elektrizitatearen **Jatorria Bermatzeko Sistema**, 2009/28/EE Zuzentaruarekin bat etorrita ezarritako Erakunde Ziurtatzaileek ematen dutena, baita ITC/2914/2011 Aginduak aldatzen duen maiatzaren 24ko ITC/1522/2007 Aginduan, IET 931/2015 Aginduan eta energia-iturri berriztagarrietatik eta efizientzia handiko kogeneraziotik eratorritako elektrizitatearen jatorriaren bermearen

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.

## Funtsezko kontzeptu batzuk

erregulazioa ezartzen duen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) 6/2012 Zirkularrean ezarritako Jatorria Bermatzeko Sistema ere.

### Ingurumen-ziurtagiriak, zeintzuk dira eta zer bermatzen dute?


Energia elektrikorako ingurumen-ziurtagiri nagusiak honako hauek dira:

- Energia elektrikoaren ekoetiketatea:** Jatorria Bermatzeko Sistematik eratorritako informaziotik abiatuta, eta ezarritako araudiaren arabera, MLBNk Jatorria Bermatzeko Sistemari parte hartu duten enpresa merkaturatzaileen energien jatorriaren mixa eta produkzio nazionalaren mixa kalkulatu ditu, baita mix orokor bat ere Sistemari parte hartu ez duten merkaturatzaileentzat (adibidez, Azken Baliabideko Merkaturatzaileak). Informazio hori guztia kontuan hartuta, MLBNk dagozkion ingurumen-inpaktuak kalkulatu ditu CO<sub>2</sub>-ren emisioei eta hondakin erradioaktiboiei dagokienez. Informazio horrek Ekoetiketa Energetikoa izenekoa eraten du. Kalkulu guztiak aurreko urtekoak dira. Europako Zuzentarauaren arabera, enpresa merkaturatzaileek azken kontsumitzaileari bidaltzen dizkieten faktura elektrikoetan honako hau bildu behar dute: lehen mailako energia-iturri bakoitzak aurreko urtean merkaturatutako energian egin zuen ekarpenaren banakapena, baita CO<sub>2</sub>-ren emisio espezifikoiei buruzko informazioa ere.

### Impacto medioambiental

El impacto ambiental de su electricidad depende de las fuentes energéticas utilizadas para su generación.

En una escala de A a G donde A indica el mínimo impacto ambiental y G el máximo, y que el valor medio nacional corresponde al nivel D, la energía comercializada por su "Comercializador A" tiene los siguientes valores:



## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.

### Funtsezko kontzeptu batzuk

- Honako hauek dira merkatuan gutxien hedatuta dauden beste ekoetiketa ofizial batzuk:

Etiketa	Logo ofiziala
EKO Energy (Europa)	
OK Power (Alemania)	
Naturemade (Suitza)	



## KONTRATATZEKO ERABAKIA HARTZEN DENETIK HONDAKINAK KUDEATZEN DIREN ARTE

Energia-hornidurako zerbitzu bat kontratatzekeo prozesuan eta norberaren kudeaketan, erabakitzeko eta eragiteko hainbat aukera ditugu erosle eta kontsumitzaile gisa. Zeintzuk dira? Nola egin dezakegu lan modu iraunkorrean?

### ZEIN DIRA NIRE BENETAKO PREMIAK?

#### 1. unea. Premiak

Kontratazio zuzena egiteko, hornidura-puntu bakoitzari buruzko informazio xehatua, kontsumitutako energia, eskatutako benetako potentzia eta abar zein diren jakin behar da.

Era berean, garrantzitsua da energiaren faktura zer zatik osatzen duten jakitea, baita zein den kontratatutako potentzia, maximotoaren potentzia, fakturatutako potentzia, energia-terminoa, energia erreaktiboa, elektrizitatearen zerga, eta abar.

Horrela, informazio xehatua emanez, erabaki egokiak hartzea sustatzen da energia gehiago aurrezteko.

### EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.

## ZER ETA NOLA KONTRATATU?

### 2. unea. Energia-zerbitzuak kontratatzea

Benetako premiak ezarri ondoren, ingurumena errespetatzen duen kontratua egingo da, ingurumen-irizpideak sartuz. Ingurumen irizpide horiek oinarritzkoak, aurreratuak eta bikainak izan daitezke.

Eskatutako mailaren arabera, zer kontratatu behar dugu?

**Eskakizun-maila OINARRIZKOA** bada:

- **Hornidura elektrikorako ingurumen-irizpideak:**

**Energiaren jatorria:** Hornitutako elektrizitatearen % 20 energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo errendimendu handiko kogeneraziotik sortutakoa izango da.

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Esleipendunak honako hau igorriko dio erakunde lizitatzailari:

- Goi-tentsioko horniduretarako, formatu elektronikoan egindako faktura bat gutxienez hileroko, hilabete naturalarekin bat datorrena, amaitutako aldiaren egindako horniduraren kontratu guztien zenbatekoa batuta. Faktura hori zehatz-mehatz banakatu beharko da.
- Hilero, fitxategi bat, excel formatuan edo erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den beste formatu batean egindakoa. Fitxategi horretako errenkadetan kontratu guztiak azalduko dira eta zutabeetan, aldiz, erakundearen kontsumoa zehatz-mehatz ezagutzeko behar den informazioa eta informazio osagarri garrantzitsua.
- Sei hilean behin, Excel formatuan egindako txosten bat, kontsumo-puntu bakoitzeko energia errektiboaren kontsumoaren jarraipena eta instalazioaren errendimendua hobetzeko neurrien proposamena biltzen dituen.
- Urtero, Excel formatuan egindako txosten bat, kontsumo-puntu bakoitzerako kontratatutako potentzia izandako desbideratzeen jarraipena biltzen duena eta beharrezkoak eta komenigarriak diren potentzia-doikuntzak proposatzen dituen.
- Urtero, hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoen urteko bilakaerari buruzko informazioa biltzen duen txostena erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den formatu batean.

## 2. unea. Energia-zerbitzuak kontratatzea

- **Gas naturala hornitzeko ingurumen-irizpideak:**

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Esleipendunak honako hau igorriko dio erakunde lizitatzailari:

- Ondorengo horniduretarako kontratatu behar den tarifari buruzko informazioa, sarerako sarbideen kostua minimizatzeke, baita kWh-ren kostuan eragina duten beste parametro batzuk ere.
- Hilero, amaitutako epean egindako horniduraren kontratu guztien zenbatekoen batura biltzen duen faktura bat formatu elektronikoan. Termino garrantzitsuenak banakatuko dira fakturan.
- Hilero, fitxategi bat, excel formatuan edo erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den beste formatu batean egindakoa. Fitxategi horretako errenkadetan kontratu guztiak azalduko dira eta zutabeetan, aldiz, erakundearen kontsumoa zehatz-mehatz ezagutzeko behar den informazioa eta informazio osagarri garrantzitsua.
- Urtero, hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoen urteko bilakaerari buruzko informazioa biltzen duen txostena erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den formatu batean.

- **Gasolio-hornidurarako ingurumen-irizpideak:**

**Osaera:** Erregaiak indarreko araudia beteko du, eta zehazki, 61/2006 Errege Dekretuan eta Dekretu hori aldatzen duten 1088/2010 Errege Dekretuan eta 290/2015 Errege Dekretuan ezarritako ezaugarriari eta kalitateari buruzkoa.

Erakunde lizitatzailak eskaintzen den gasolioaren ezaugarri kualitatiboak adierazi beharko ditu bere eskaintzan. Sufre-edukia zehaztu beharko da (mg/Kg).

Eskakizun-mailaren arabera, hornitu behar den gasolioaren sufre kopuru txikiak balioetsi ahal izango dira.

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Esleipendunak honako hau igorriko dio erakunde lizitatzailari:

- Amaitutako epean egindako horniduraren kontratu guztien zenbatekoen batura biltzen duten fakturak formatu elektronikoan. Faktura hori honela banakatuko da:
  - Gasolioaren kontsumoari dagokion guztizko zenbatekoa.
  - BEZaren guztizko zenbatekoa.
  - Beste zerga batzuei dagokien guztizko zenbatekoa.

## 2. unea. Energia-zerbitzuak kontratatzea

- Hileko fitxategi bat, excel formatuan edo erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den beste formatu batean egindakoa. Fitxategi horretako errenkadetan kontratu guztiak azalduko dira eta zutabeetan, aldiz, erakundearen kontsumoa zehatz-mehatz ezagutzeko behar den informazioa eta informazio osagarri garrantzitsua.
- Hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoen urteko bilakaerari buruzko informazioa biltzen duen urteko txostena erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den formatu batean.

**Eskakizun-maila AURRERATUA** bada:

- **Hornidura elektrikorako ingurumen-irizpideak:**

**Energiaren jatorria:** Hornitutako elektrizitatearen % 50 energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo errendimendu handiko kogeneraziotik sortutakoa izango da.

**Eskakizun-maila BIKAINA** bada:

- **Hornidura elektrikorako ingurumen-irizpideak:**

**Energiaren jatorria:** Hornitutako elektrizitatearen % 100 energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo errendimendu handiko kogeneraziotik sortutakoa izango da.

Irizpide horietatik guztietatik garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak eskatu edo baloratuko ditugu kontratazioetan. Irizpideak hautatzeko garaian, kontratuaren tamaina hartu behar da kontuan eta proportzionaltasunaren printzipioari jarraitu behar zaio lehia eragotzi gabe eta ETE enpresei sarbidea ahalbidetuz.

Ezaugarri horiek dituen zerbitzu bat kontratatu nahi duen Administrazioaren kasuan, Ihobek argitaratutako kontratazio eta erosketa publiko berdearen eskuliburu praktikoan daude pleguan txertatu behar diren irizpide espezifikoak (hiru eskakizun-mailatarako: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasunezkoa), Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari jarraikiz.

## NOLA IZAN GAITEZKE EFIZIENTEAK ERABILERAN?

### 3. unea. Kontsumoa

Ingurumen-irizpideak dituzten energia-hornidurak erosteaz gain, erronka handiena gure kontsumoa kontrolatzea eta, ahal bada, gutxitzea da. Energia kontsumitzen duten eraikinen edo ekipoen energia-ezaugarriak garrantzitsuak dira, baina erabilera eta mantentze egokiak egitea ere funtsezkoa da. Jarraian, kontsumoa murrizten lagundu dezaketen ideia batzuk proposatuko dizkizugu:

- Erabileraren fasean, azpiegituren kudeaketa egokia bada, energia-kontsumoa nabarmen murriztu daiteke honako honen bitartez:
  - a) Azpiegituren energia-funtzionamendua eta azpiegiturei buruz egiten den eskaera aldakorra lotzen dituzten erregulazio- eta kontrol-sistemen bitartez.
  - b) Energia monitorizatzeko sistemak inplementatzea energiaren erabilera optimizatzeko.
  - c) Erabiltzaileak kontzientziazteko kanpainak.
- Mantentze-fasean bermatzen da azpiegiturek behar bezala funtzionatzen jarraitzen dutela eta lehendik dauden ekipoen ordezkari ekipu efizienteagoak jar daitezke (berokuntza-sistemak, aire girotua, igogailuak, ibilgailua, argiak eta abar).

Bestalde, funtsezkoa da erabiltzaile guztiak kontzientziaztea erabilera arrazoizkoa eta efizientea egiteko. Beraz, ezinbestekoa da erabiltzaileei jarduteko jarraibideak ematea kontsumo arduratsua egiteko.



## INFORMAZIO GEHIAGO...

### Esteka interesgarriak

- [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (administrazio- eta bulego-eraikin berrien eraikuntzari buruzkoa da berriazko atal bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du Ihobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA.